

## MACHUP 0. IDEIA

Gure ideia, Machup izeneko saltsa bat egitea da. Gero eta jende gehiagok maite ditu saltsak, eta arrakasta handia izango duelakoan gaude.

Nahiz eta badakigun etxeko saltsa bat egitea oso erraza dela, gaur egun jendeak ez du sukaldatzeko astirik. Saltsa hori, zapore haluzinagarria izateaz gain, ekologikoa da, hori egiteko erabiliko ditugun produktu guztiak ekologikoak izango baitira eta erabiliko ditugun ontziak beira birziklatuarekin eginak.

Hasiera batean, internetek eskaintzen dizkigun abantailak erabiliko ditugu gure saltsak saltzeko (facebook, instagram) eta Bilbo eta bere inguruan dauden supermerkatu eta dendekin akordio bat egingo genuke gure produktua saltzeko. Denbora joan ahala, eta mozkinak izatekotan, mozkinak berrinbertituko genituzke enpresan, webgune bat sortzeko eta gure saltsa nazio mailan supermerkatu eta dendetan saltzeko.